

## ASTE SANTUA - GURUTZBIDEA SANTA BARBARARA

### Odriozola apaizak pakea eskatu zuen "gauza guztien gaineratik, hori delako gure ondorengoei utzi genezaiekeen onena"

■ Ehundaka pertsona izan ziren Ostiral Santuko Gurutzbidean ■ Gaur Meza Nagusiak hiru parroketan, Jesusen piztuera ospatzeko.

AURTEN ere Santa Barbarako bidea jendez bete zen Ostiral Santu egunean, eta ehundaka fededunek egin zuten Gurutzbidea eguraldi ederrarekin, 14 egonaldietan otoitz eginez. Manuel Odriozola apaizak pakea eskatu zuen "hori delako kristau ekintzarik eta giza ekintzarik onena, eta hori delako ondorengoei utzi genezaiekeen onena". Odriozolak Gurutzbidearen 12 garren egonaldian egin zituen pake eske horiek, Nazaretoko Jesukristo gurutzean hil zutenekoan. Odriozolak pakea eskatu zuen "Hernanirentzat eta gure herri osoarentzat, munduko aberri eta gauza guztien gaineratik". Apaizaren hitzetan, adiskidetasuna eta maitasuna dira bidea.

#### Giza baloreak

Gurutzbidean, Manuel Odriozola giza baloreak defenditu zituen, beste era bateko baloreen aurrean. Esan zuen efikazia eta diruaren gizartean bizi garela, eta askorentzat makina baten etorkizunak pertsona baten etorkizunak baino gehiago balio duela, petrolio puska batek pertsona askoren biziak baino gehiago balio duela. Baina, era berean, eskerrak eman zizkion Jaunari jende on asko ere badagoelako, ezere truke laguntzeko pronto dagoen jendea ere badagoelako. Juan Bataiatzaileako parrokoak fededunei esan zien si-

"Botere bila gabiltza, goian egotea nahi degu herria zerbitzeko ere. Jesusek behetik egin zuen hori."



Fededunak Gurutzbidean Ostiral Santu Egunean, Santa Barbara bidean gora. Jende ilera luzea bildu da aurten ere.

nesteko maitasunaren indarrean, egiaren indarrean, barkamenaren indarrean, eta indarkeriarik gabeko indarrean. Bere esanetan, "hiltzea ez da soluzioa eta hiltzeak ez du inoiz bizirik ematen".

#### Sufrimendu gehiegi munduan

Ostiral Santuko Gurutzbidean, Hernaniko apaizak adierazi zuen sufrimendu gehiegi dagoela munduan, eta zenbaitek sinistu arazi nahi digula "beharrezkoa dela batzuk gaizki bizitzea, beste batzuk ondoegi bizitzeko". Motibo bategatik edo besteagatik sufritzen ari direnak izan zituen gogoan eta itxaropen hitzak izan zituen berentzat.


#### "Gure ingurua pizten ari denaz jabetu"

Gurutzbidean bildu zirenei apaizak esan zien Jesusen piztuera sinesten ez duena ez da benetako kristaua. Odriozolak, ordea, adierazi zuen piztuera modu gehiago ere badaudela gure inguruan eta

garrantzitsua dela horietaz jabetzea eta behar bezala baloratzea. Adibide bezala jarri zuen herriko gazte jende batek kristau bidean aurrera egiteko erakutsitako desioa eta ikuspegi berria, eta esan zuen hori ere resurrekzioa dela. Gurutzbidean, gurutzera gazte batek

eraman zuen.

Aste Santuko ekitaldi erlijiosoak gaur bukatuko dira Jesusen Piztuera ospatzeko Meza Nagusiekin: San Antonio parrokiak 10:30etan izango da meza, Juan Bataiatzailean 11:00etan eta Jose Langilean 12:00etan. □



Manuel Odriozola Gurutzbidean.

"Orain dela gutxi gazte jende batekin egon naiz eta beren erreflexioen berri eman didate. Laguntasunean sinesten dute eta ez dute ezagutu gabe juzkatu nahi. Beren konpromisoa da bizitzaren aurrean positiboak izatea eta garbi jokatzeko. Eliza berritzea gustatuko litzaietxe eta berritze horren parte izatea eta laguntzea nahi dute. Hori ere bada resurrekzioa"

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979  
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Jeep Cherokee 2.5	TDI	SS-BB
SAAB 2000 Coupe		1.995urtekoa
Fiat 1 -	Diesela	GI-AY
Opel Astra	Diesela	NA-AK
Renault Megane Coupe	Sport	SS-BJ
Renault Express	Diesela	SS-AS
Lada Niva	Gasolina	SS-AP

1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe  
...eta hainbat kotxe merke

**Lirwin**

GAZTE JAZKERA



Udaberri - Udako moda

Larramendi kalea, 9 ☎ 943 55 39 49 - Hernan

**Telemar** Itxastele, S.L.

Movistar Activa  
Hartu eta hitzegin



46 euro deitan

Pack Activa 135,95 euro (+46 euro deitan)

Estrena plana 89 eurotik + 30 euro errenergia doain

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



Betikoak taldeko zenbait kide San Joanetan, Plaza Berrin.

## Betikoak taldeak 25 urte beteko ditu aurten eta Udalak omenaldia egingo dio San Joanetan

■ Ezkonduen egunean emakumeek ezer egiten ez zutela eta hasi ziren ateratzen, ekainaren 25arekin ■ Hasieran 9-10 emakume elkartu ziren eta gaur egun 35 dira.

BETIKOAK taldeak 25 urte beteko ditu aurten eta Udalak omenaldia egiteko die San Joanetan, ekainaren 25ean, koadrila egunean. San Joanetako garai bateko ezkonduen egunean sortu zen Betikoak taldea, emakumeak festan parte hartzen ez zutela eta. Geroztik urtero urtero elkartzeko da emakume koadrila, ekainaren 25ean, eta nekez failatzen dute 35 partaideek. Tartean Hernanin bizi den jendea eta kanpoan bizi dena dago eta badago Ingalaterra-

tik urtero etortzen denik ere...

### Taldea berritzen

Badira hasiera hasieratik taldean dauden emakumeak eta baita geroago sartzen joan direnak ere. Betikoak taldeko partaideek Kronikari esan diotenez jende berria behar da, baina, ez inork utziko duelako, segitzeko asmoa baitute. Aurten ere plana egina dute, nahiz eta zita ofizialik ez den egiten: "goizeko 07:30ak aldera hasten gara kalera ateratzen eta bazkal

ordurako koadrila ederra juntatzen gara, gure bluxa arrosekin". Betikoak taldeko kideek diotenez, urtero izaten dute zerbait berria festa giroan: txarangarekin bazkaria, herri bazkaria... eta 25 urte hauetan badute makina bat pasadizo.

San Joanak oraindik nahiko urruti daude, baina, Betikoak taldearentzat berezia izango da 25garren urteurren hau eta dagoeneko irrikitan daude koadrila kideak, festak noiz etorriko. □

## ■ FUTBOLA



Hernaniko jokalariek ostiralean partidua jokatu ondorenean.

## Jubenilak eta erregionalak lagunarteko partidu jokatu dute gaur Zubipen, talde katalan baten kontra

■ Partidua 16:00etan da ■ Ostiralean, Heraniarrek 3-2 irabazi zuten.

CDH-ko ekipo jubnil eta erregionalak lagunarteko torneo bat jokatzeko ari dira Aste Santuan Kataluniako konbinatu baten kontra. Ostiralean hiru denborako partidua joka-

tu zuten jubenilek eta gaur beste horrenbeste egingo dute, baina, kasu honetan jubenilak eta erregionalekoak nahastua. Partidua arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

Ostiralean, hernaniarrek 3-2 irabazi zuten eta oso gol politak izan ziren. Hernaniarrek golak Mikel Garziak, Iñigo Perezek eta Igor Kabok sartu zituzten. □



Odol emaileak orain bi urte egindako omenaldian.

## Gipuzkoako Odol Emaile Elkarteak 103 donante omenduko ditu Hernanin

■ 26 odol emaile hernaniarrek izango dira, eta horietatik 3, 50 aldiz odola eman dutenak dira.

GIPUZKOAKO Odol Emaile Elkarteak urtero omenaldi sinboliko bat egiten die 50 eta 25 aldiz odola eman duen jendeari. Ekitaldia eskualdeka izaten da, eta Tolosalde hasi eta Donostiara bitarteko 103 donante omenduko ditu aurten, horietatik 26 hernaniarrek.

Aurten hiru hernaniar dira 50 aldiz odola emateagatik oroigarria jasoko dutenak: Asentxio Zubeldia, Kontxi Iraza eta Karlos Kintana. Gainerakoak 25 aldiz eman dutenak dira: Rosa Maria Lopez, Juan Antonio Iraola, Mari Paz Perez, Juan Ignazio Sargarna, Jabier Noriega, Jose Antonio Garzia, Jose Juan

Genbeltzu, Rosa Mari Balerdi, Arantxa Goikoetxea, Jabier Mujika, Laurentino Bizente, Jose Andres Iturralde, Jose Antonio Sanz, Gregorio Amatriain, Juan Martin Zabalegi, Juan Bautista Aristorena, Isabel Avila, Marimi Azkue, Jose Luis Castillo, Migel Angel Serrano, Karmen Bueno, Jabier Sasiain eta Mari Jose Iturralde.

Odol Emaile Elkartearen omenaldi ekitaldia datorren igandean izango da. Eguerdiko 12:30etan meza izango da Juan Bautista parrokiaren eta gero bazkaria, Etxeberria sagardotegian. Oroigarriak bazkalondoan banatuko dituzte.

## Joseina Etxeberria gaur Oialumen

OIALUME biltokian Disko Festa izango da gaur eta bihar. Gaur, igandea, Joseina Etxeberriak jarriko du festa

eta bihar Disko Top izango da protagonista. Festa 19:30etatik aurrera hasiko da Oialumen. □

## Erremonte partiduak gaur Galarretan

ERREMONTEAREKIN gozatu nahi duenak gaur ere aukera du Galarretan. 16:00etan hasita 4 partidu jokatu dira: Odriozola-Agirrezabala/

Matxin IV-Jon, Agirresarobe-A.Lekunberri/Bereziartua-Aizpuru, Sarasua-Txikuri/Bitoria-Mendizabal, eta Matxin III-Gaztelu/Larrea-Lander. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ▶ Gaez: Gorospe Andoain. Rikardo Arregi 12 ☎ 943 592415

### IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 08:00-12:00etara eta 16:00-20:00etara. 609 76 10 85 (20:00etatik aurrera deitu).

OIALUME  
BILTOKIA.

Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30etatik

Joseina  
Etxeberria gaur  
OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa  
943 55 29 38

ARALAR  
TABERNA

